ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Klausula-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hauxe da: "MUNITIBARKO UDALEKO ERAIKIN ETA LOKALEN GARBIKETARAKO ZERBITZU KONTRATUA" espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorrita; dokumentazio horrek kontratu-balioa du.

CPV kodea: 90911200-8.

Kontratu honen objektua ez da sortaka zatitu hurrengo arrazoiengatik: kontratuaren objektuan jasotako prestazioak modu independentean emateak zailtasunak ekarriko lituzke kontratua ikuspuntu teknikotik zuzen egikaritzeko; eta aldi berean, kontratua zuzen ez egikaritzeko arriskua etor liteke honen objektuaren izaeratik, berekin baitakar prestazioak emateko koordinatu beharra eta hori ezinezko gerta baitaiteke sortaka zatitzearen eta hainbat kontratistaren artean gauzatzearen ondorioz.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren barne erabilera planean erregulatua.

2. KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Preskripzio teknikoen agirian jasota dago zer arrazoirengatik egingo duen administrazio honek agiri honen xede den kontratua.

3. EGIKARITZEKO EPEA

Kontratua egikaritzeko epea BI URTEKOA izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita.
Kontratua luzatu egin daiteke, alderdi biek batera hala erabakitzen badute, eta luzapenak, gehienez, BI URTE iraun ditzake.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

1.- Kontratuaren aurrekontuaren zenbatekoa hau izango da: 65.310,00 € euro, gehi 13.715,10€ BEZari dagozkionak. Lizitatzaileek aurrekontua hobetu dezakete.

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia 130.620,00 euro da, BEZa aparte.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurreikusita dago urteko aurrekontuaren konturako finantzaketa, 920.22701 eta 341.22701 aurrekontu-aplikazioetan. Halaber, aurrekontuen arloko eskumena duen organoak behar diren kredituak ezarriko ditu kontratu honek eragingo dien hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

6. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

Dagokion faktura elektronikoa aurkeztu eta onesten denean ordainduko da kontratuaren prezioa, transferentzia bidez.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan jasotzearren, honako hau adierazi behar da: Udaleko Udalbatza da kontabilitate publikoaren arloan eskumena duen organoa; Udalbatza da kontratazio-organoa, eta Munitibarko Udala da unitate hartzailea.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Espedientean egiaztatzen den bezala, kontratu honen prezioak berrikusi ahal izango dira, honako hauetan xedatutakoarekin bat etorriz: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 103.2 artikulua, martxoaren 30eko 2/2015 Legearen (Espainiako ekonomiaren desindexazioarena) 4. eta 5 artikuluetan aipatutako errege-dekretua, eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 104.etik 106.era bitarteko artikuluak.

Formula hau aplikatu beharko da prezioak berrikustean: Kontsumoaren gaineko Prezioen Indizea aplikatuko da.

8. BERMEAK

Kontratu honen izaera kontuan hartuz, ez da behin betiko bermerik eskatuko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 107. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatuko da, SPKLren 159. artikuluko 1. apartatutik 5. apartatura artean ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta hura garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, honako prozesu honi jarraituz:

1) **Hartzailearen esku jartzea**.
2) **Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukiak eskuratzeko bidea**.

Epeak egun honetatik hasiko dira zenbatzen: jakinarazpena egiten den egunetik (jakinaraztearen xede den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaile-profilean), edo jakinarazpena jasotzen den egunetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzaile-profilean).

Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte, ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere, eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatuta badaude, SPKLren 159.4 artikuluan prozedura ireki sinplifikaturako eskatzen den bezala. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko, 17. klausulan ezartzen diren bitartekoak erabiliko dira.

Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezgaitasun horiek.
Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

13. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Honako hauek dira kontratua adjudikatzeko oinarri izango diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta haien haztapena:

- Irizpide objektiboak: (75 puntu)
  - Eskaintza ekonomikoa: prezioa (65 puntu)
  - Bai euskarari edo bikain ziurtagiria izatea (5 puntu)
  - Esperientzia (5 puntu)
- Balorazio irizpideak (25 puntu)
  - Arlo tekniko eta metodologikoa (17 puntu)
  - Genero ikuspuntua (4 puntu)
  - Azken bost urteetan kontratu mota berdinen egikaritze egokia (4 puntu)

- Automatikoki antzematen diren irizpideak, jarraian adierazten direnak, honako formula hauek aplikatuz balioetsiko dira (75 puntu):

- Eskaintza ekonomikoa: Eskaintza merkeenari 65 puntu emango zaizkio, eta gainontzekoei hiruko erregela aplikatuko zaie, proportzionalki lehenengoarekiko.
- Bai euskarari edo bikain ziurtagiria duten lizitatzaileei bost puntuna emango zaie
- 1000 biztanletik beherako Udal bakoitzean kontratu mota berdina izan duten urteko puntu bana emango zaie; gehienez bost puntu emango zaie.

- Balorazio irizpideei dagokienez, honako arlo hauek baloratuko dira (25 puntu):
  - Arlo tekniko eta metodologikoa: 17 puntu gehienez. Proiektua egin beharko da, gehienez 20 orrialdekoa eta euskaraz aurkeztu beharko da. Kopuru horretarik gora orrialde bakoitzeko puntu bat kenduko da. Proiektuan honako hauek baloratuko dira.
  - Helburuak eta metodologia (7 puntu)
  - Erabiliko diren materialen egokitasuna (5 puntu)
  - Enpresaren giza baliabideak egokiak izatea (5 puntu)
  - Genero ikuspuntua nola txertatzen duten eman beharreko zerbitzuetan (4 puntu)
  - Azken bost urteetan enpresak egin dituen antzeko lanen balorazioa egingo da, eta udal honetarako egokitasuna baloratuko da (4 puntu)

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Honako kide hauek osatuko dute kontratazio-mahaia:

- Mahaiburua: Arkaitz Goikoetxea Etxebarria
- Mahaiko idazkaria: Miren Urkizu Romero
- Kideak: Oibar Legarra Gorostola
- Kide ordezkoa: Ainoa Lauzirika Aranburu

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA KLAUSULA-AGIRIAK ESKURATZEKO BIDEA

Lizitazio hau Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman baitago.

Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira plataforma horren bidez, 20 laneguneko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik, epearen azken eguneko 12:00ak baino lehen.

Honako helbide honen bidez sartu ahal izango da Udalaren kontratatzaile-profilean: www.munitibar.org Toki horretan bertan eskuratu ahal izango dira klausula-agiriak eta dokumentazio osagarria.

Lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino 12 egun lehenago egin badira eskariak.

SPKLren 136.2 eta 136.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo klausula-agiriari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokitzat jotzen den adina.

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta Kontratazio Mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; dena den, aldaerak onartu ahal izango dira. Halaber, ezin izango du beste aldi baterako enpresa-

elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik.

Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek bi gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta; klausula honetan adierazitako edukia izan beharko du bakoitzak.

«A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «GAITASUNA, KAUDIMENA ETA BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK»

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

a) Posta elektronikoko helbide gaitua.

Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan ezarritako eskakizunak, bereziki 12. eta 17. klausuletan.

Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.

c) Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren eragile ekonomikoen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

d) Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

e) Balio-iritzien araberako irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak, zeinak agiri honetako 13. klausulan adierazita baitaude.

«B» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK»

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

a) Proposamen ekonomikoa, II. eranskineko ereduaren araberakoa.
b) Unitateko prezioen zerrenda, hala badagokio.
c) Klausula-agiri honetako 13. klausulan adierazitako automatikoki zenbatestekoak diren gainerako irizpideei buruzkoak.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.

17. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA; ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jardun hauek egingo dira:

1. **«A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKI**

Kontratazio-mahaiak, gutxienez 48 ordu lehenago kontratatzaile-profilean argitaratuko den toki, egun eta ordu batean, «A» gutun-azala irekiko du elektronikoki, eta egiaztatuko du hartan jasotako dokumentazioa, hala kontratua lortzeko eskakizunak betetzeari dagokiona nola balio-iritzi baten araberako irizpideei dagokiena. Ekitaldi

horren ondoren, mahaiak udalaren zerbitzu teknikoei igorriko die dokumentazioa, irizpide horiek balioets ditzaten.

Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak sei egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera (zeinak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen baitu).

2. **«B» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKI, ETA LEHENENGO SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN ARTEKOAK**

«A» gutun-azala ireki eta zerbitzu teknikoek balio-iritzi baten araberako irizpideak balioetsi ondoren, kontratazio-mahaiak «B» gutun-azala irekiko du, udalaren kontratatzaile-profilean iragartzen den tokian, egunean eta orduan, eta honako jardun hauek egingo ditu:

1.- Jakinaraziko du balio-iritzi baten araberako irizpideak balioestearen emaitza.

2.- Lizitatzaile bakoitzaren «B» gutun-azala irekiko du, eta haren edukia irakurriko.

Ekitaldi horren ondoren, honako jardun hauek egingo ditu mahaiak:

1.- Baztertu egingo ditu klausula-agiriko eskakizunak eta betebeharrak betetzen ez dituzten eskaintzak, halakorik badago.

2.- Automatikoki ebaluatzekoak edo formulak erabiliz zenbatestekoak diren irizpideak balioetsiko ditu.

3.- Eskaintza bakoitzak guztira lortutako puntuazioa ezarriko du, eta puntuazio handienetik txikienera sailkatuko ditu eskaintzok.

4.- Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen aldeko adjudikazio-proposamena egingo du.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxuegia dela uste izanez gero, 149. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzeagatik, artikulu horretan ezarritako prozedurari jarraituko dio; dena den, ezin izango da izan 5 egun baliodun

baino luzeagoa izan lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko duen epea, dagokion komunikazioa igortzen zaionetik.

Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, eta aktetan jaso, nahitaez idatzi beharko baitira aktak.

5.- Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistrora edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialera joko du, eta kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzailearen datuak egiaztatuko ditu: haren izaera, gaitasuna, kaudimena eta kontratatzeko debekurik ez izatea.

6.- Komunikazio elektronikoaren bidez, kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzaileari eskatuko dio zazpi egun balioduneko epean (komunikazioa igortzen zaionetik) jarduketa hauek egin ditzan edo dokumentu hauek eman ditzan:

a. Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

b. Lizitatzailearen esku beharrezko diren baliabideak jarriko dituzten erakundeen konpromisoa, hala badagokio, SPKLren 75.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

c. Dokumentazio egiaztagarria, kontratuaren egikaritzean erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa hartu zuen bitartekoak benetan dauzkala egiaztatzeko, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera.

d. Hala badagokio, kaudimenari buruzko beste edozein dokumentazio, dagokion lizitatzaile-erregistroan ez badago. Horri dagokionez, gutxieneko kaudimen-eskakizun hauek bete behar dira kontratu hau lortzeko:

Kaudimena honako bi bide hauetako batez egiaztatu behar da, lizitatzailearen aukeran:

- Kontratistak 1go kategoriako U taldeko, 1 azpitaldeko zerbitzuak kontratatzeko gaitasuna ematen dion sailkapena duela egiaztatzen duen agiria.

- Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak, SPKLren 87. artikuluan eta 90. artikuluan ezarritako bitartekoen bidez.

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, hiru egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko; lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

3. **ERREKERIMENDUA BETE EZEAN**

Horretarako emandako epean adjudikaziodun izateko proposatutako hautagaiak ez baditu aurkeztu behin betiko bermea eta eskatu zaizkion gainerako dokumentuak, puntuazio onenetan hurrena duen hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio behin betiko berme hori jar dezan.

18. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZATZEA

Gehienez 5 egun naturaleko epean Kontu-hartzailetzak gastu-konpromisoa fiskalizatu ondoren, 159.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratazio-organoak kontratuaren adjudikazioa ebatziko du, lehenengo sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Lizitatzaile guztiei emango zaie adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Adjudikazio-jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezin izango baita 15 egun baino gehiagokoa izan, adjudikaziodunak administrazio honetara jo behar du kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatzeko.

19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako

interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

20. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA

Kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, agiri honetan jasotako klausulei eta, hala badagokio, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoei jarraituz. Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu.

Kontratistari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotz dakiokeen egintza edo ez-egite baten ondorioz arriskuan jartzen bada kontratua egokiro egikaritzea, administrazioak agindu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratuaren egikaritze egokia lortzeko edo berrezartzeko.

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze-baldintza berezi hauek eskatuko dira:

- Ingurugiroaren babesa sustatzeko, erabilitako materialen eta produktuen birziklatzea eta ontzi berrerabilgarriak erabiltzea.
- Lan baldintzei dagokionez, langileen segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurralde-mailakoak betetzen direla bermatzea ere.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebeharra dira; horrenbestez, SPKLren 201 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Halaber, honako betebehar hauek izango ditu kontratistak:

- Zerbitzua hitzartutako jarraitutasunaz eskaini behar du, eta partikularrei bermatu behar die zerbitzua erabiltzeko eskubidea xedatutako baldintzen arabera, eta ezarritako ordain ekonomikoaren truke, hala badagokio.

- Zerbitzua ondo dabilela zaintzea.

- Zerbitzuaren funtzionamenduak eskatzen dituen eragiketek hirugarrenei eragiten dizkieten kalteak ordaindu beharko ditu, salbu eta administrazioari egotz dakizkiokeen kausek eragin badute kaltea.

- Kontratuaren arabera entregatu behar dituen obrak eta instalazioak ondo zainduta eta ondo funtzionatzen dutela entregatu behar ditu.

Zerbitzuari atxikitako ondasunak ezin izango dira enbargatu.

Kontratistaren ez-betetze baten ondorioz zerbitzua larri nahasten bada, beste bitarteko batzuez ezin bada konpondu, eta administrazioak kontratua suntsiaraztea erabakitzen ez badu, administrazioak erabaki ahal izango du hura bahitzea edo atzematea harik eta nahasmendu hori amaitzen den arte. Nolanahi ere, benetan sortutako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak administrazioari.

Administrazioak beretzat gordeko ditu zerbitzuak ondo funtzionatzea bermatzeko behar diren zaintza-ahalak.

21. KONTRATISTAREN LAN-ARLOKO BETEBEHARRAK

Kontratu honen xede diren zerbitzuetan kontratatuko dituen langileei dagokienez, kontratista behartua dago lanaren, gizarte-segurantzaren zein laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzera, bai eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren araberako lan-baldintzak ere. Administrazioa salbuetsita geratuko da ez-betetze horren erantzukizunetik.

Kontratistak enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra du kontratuaren xede den zerbitzua ematen ari diren langileekiko lan-harremanetan; agiri honi atxikita dago haien lan-baldintzei buruzko informazioa. Kontratistak subrogatzeko dituen betebeharrak bete ezean, agiri honetako 26. klausulan adierazitako zigorrak aplikatuko zaizkio.

SPKLren 130. artikuluan ezarritakoaren arabera, subrogazioak ukitutako langileen ordaindu gabeko soldatei ere erantzun behar die kontratistak, baita sortutako Gizarte Segurantzako kuotei ere, kontratua suntsiarazi eta horiek kontratista berriak subrogatuko balitu ere, eta, kasu horretan, betebehar hori ez legokioke inola ere kontratista berriari. Hala gertatzen bada, soldata horiek ordaintzeke daudela egiaztatuta, dagokien zenbatekoa atxikiko dio udalak aurreko kontratistari, soldatak ordaintzea bermatzeko, eta ez dio itzuliko behin betiko bermea harik eta ordaindu direla egiaztatu arte.

22. KONTRATISTAREN EUSKARAREN INGURUKO BETEBEHARRAK

A) Jarraipenaren arduraduna:

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. artikuluari jarraiki, kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

B) Obligazio izaera:

Baldintza agiriotan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

C) Udalarekiko harremana:

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koaren, III. kapituluan zehaztutako aukerari jarraiki.

23. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI EGITEN ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistak izango du kontratua egikaritzeko egin beharko diren eragiketek ekarritako kalte eta galeren erantzukizuna

24. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan esanbidez adierazitako baldintzetakoren bat betetzen bada, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, baldin eta horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

Gorago adierazitako aldaketa horiek bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat.

25. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak eskuratu beharra eragiten badu, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorretik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, bai eta SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritakoak ere (xedapen hori Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta).

26. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA

Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta gehienez hilabeteko epean, haren harrera-ekitaldi formal eta positiboa gauzatuko da.

Gainera, HILABETEKO epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.
Berme-epe horretan egiten diren lan edo zerbitzuetan akatsak agertzen badira, kontratista izango da erantzulea.
Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

27. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK

A) Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo

honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).

B) Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren %10en baliokidea den zigorra ezartzea.

C) Prestazioa oker gauzatzea

Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren %50.

D) Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren %50.

E) Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren %50.

F) Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuak ukitutako langileak subrogatzearen arloan dituen betebeharrak SPKLren 130.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren %50.

28. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan daude ezarrita.

29. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke kontratistak, baldin eta:

a) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan ez badira kontratua hari adjudikatzeko,
b) merkatuan lehiaketa benetan murrizterik ez badakar lagapenak,
c) kontratistaren ezaugarrien aldaketa nabarmenik ez badakar lagapenak, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua diren kasuetan, eta
d) SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunekin bat badator lagapena.

30. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.

Azpikontratuak egiteko lizitatzaileek kontratuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duten adierazi beharko dute eskaintzan, kontratuaren zenbatekoa adierazita, eta azpikontratistaren izena edo enpresa-profila ere adierazi beharko dute, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua.

Pleguen klausula honetan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. artikuluan ezarritako baldintzak urratuz gero, edo azpikontratistaren gaitasuna egiaztatu ez bada, edo larrialdi-egoera dakarten inguruabarrak edo azpikontratazioa presaz egin beharra dakarten inguruabarrak egiaztatu ez badira, eta kontratuaren egikaritzeak daukan eraginaren arabera, ondorio hauetakoren bat da emango da:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren 100eko 50erainoko zigorra ezarri ahalko zaio.

b) Kontratua suntsiarazi ahalko da, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letrako bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

31. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

32. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio

Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.

33. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, hala badagokio, kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako edozein errekurtso.

Munitibarren, 2025eko uztailaren 30ean

Alkatea

78884693Y ARKAITZ GOIKOETXEA (R: P4800800G)

Firmado digitalmente por 78884693Y ARKAITZ GOIKOETXEA (R: P4800800G)

Arkaitz Goikoetxea Etxebarria

MUNITIBAR ARBATZEGI GERRIKAITZ UDALA

I. ERANSKINA. KONTRATUAK EGITEKO ESKAKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN-EREDUA

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Posta-kodea .....

NAN-zenbakia: .....

Telefonoa: .....

Helbide elektronikoa: .....

Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala, neure izenean, edo honako honen ordezkari:

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Posta-kodea .....

NAN-zenbakia edo IFK-zenbakia (pertsona fisikoa edo juridikoa den): .....;

Telefonoa: .....

Jakin dut .....k prozedura abiarazi duela..... kontratatzeko. Neure erantzukizunpean,

ADIERAZTEN DUT

I. Aipatutako sozietateak, haren administratzaileek eta legezko ordezkariek, eta halaber sinatzaileak, ez dute kontratatzeko debeku eta bateraezintasunik bat ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotakoetatik.

II. Sozietateak beterik ditu indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak.

III. Sozietatea alta emanda dago Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren dagokion epigrafean.

IV.- Sozietateak ez du administrazio kontratatzailearekiko zerga-zorrik epe exekutiboan, edo bermatuak ditu.

V. Sozietateak betetzen ditu kontratu hau lortzeko administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritako eskakizun guzti-guztiak, bereziki 12. eta 17. klausuletan ezarritakoak.

.....(e)n, 2025eko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura

MUNITIBAR ARBATZEGI GERRIKAITZ UDALA

II. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea .....
NAN-zenbakia: .....
Telefonoa: .....
Helbide elektronikoa: .....

Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala, neure izenean, edo honako honen ordezkari:
Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea .....
NAN-zenbakia edo IFK-zenbakia (pertsona fisikoa edo juridikoa den): .....;
Telefonoa: .....

Jakin dut .....k prozedura abiarazi duela
..... kontratatzeko.

ADIERAZTEN DUT

1) Konpromisoa hartzen dut hura egikaritzeko
.....(e)ko epean eta prezio honetan:
..... % .....(e)ko BEZari dagozkion .....
euro. Prezio horretan sartuta daude kontzeptu guztiak: zergak, gastuak, edozein zerga esparrutako tasak eta arielak, eta kontratistaren industria-etekina, besteak beste.

2) Ezagutzen ditut preskripzio teknikoen agiria, administrazio-klausula partikularren agiria eta kontratu hau eraenduko duten gainerako dokumentu guztiak. Denak esanbidez onartu, eta ontzat hartzen ditut beren osotasunean.

3) Ordezkatzen dudan enpresak betetzen ditu irekitzeko, ezartzeko eta funtzionatzen hasteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta obligazio guztiak.

.....(e)n, 2025eko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura

III. ERANSKINA. ENPRESA LIZITATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUEN ETA KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____Jaunak/andreak,_____N.A.N zenbakia duenak, bere izenean edo (adierazi ordezkaritza-ahalmenak: administratu bakarra, ahalduna...) _____enpresaren ordezkari gisa_____IFK duenak ADIERAZTEN DU:

1. **Identifikazio-datuak.** Lizitazio honetan era guztietako errekerimenduak, komunikazioak eta jakinarazpenak egiteko datuak, Legeak ezarritako ondorio juridikoekin, honako hauek direla:

   Helbide elektronikoa:_____
   Egoitza soziala (kalea, zenbakia, pisua):_____
   K.P:_____Herria:_____
   Telefonoa:_____
   Harremanetarako pertsona:_____

ETA BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

1. **Kontratatzeko betekizunak.** Ordezkatzen duen enpresak administrazioarekin kontratuak egiteko legez eta baldintza-agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta ez duela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan zerrendatutako debekurik Administrazioarekin kontratatzeko.

2. **Ingurumenari, gizarteari edo lanari buruzko araudia betetzea.** Eskaintza egiterakoan, kontuan hartu direla Europar Batasuneko zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duten ingurumen, gizarte eta lan-arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ingurumen, gizarte eta lan-arloan aplikatu beharreko araudia, eta kontratua betearazten parte hartzen duten langileei aplikatu beharreko lan-eskubideak bermatu direla.

   Kontratistak bere gain hartzen du ekoizpen-kate osoan oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko betebeharra, bai eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak betetzekoa ere, eta, bereziki, honako hauek:

- 29 eta 105. Konbentzioak, lan behartua ezabatzeari buruzkoak.
- 87 eta 98. Konbentzioak, sindikatu-askatasunari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- 100. Konbentzioa, balio bereko lanaren truke gizonezkoen eskulanaren eta emakumezkoen eskulanaren arteko ordainsari-berdintasunari buruzkoa.
- 111. Konbentzioa, enplegua lortzeko diskriminazioaren eta arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko, erauzketa nazional edo jatorri sozialagatiko lan-baldintzen aurkakoa.
- 138. Konbentzioa, haurren esplotazioa eta lana abolitzeari buruzkoa,
- 182. Konbentzioa, haurren lan modurik okerrenak debekatzeari eta horiek ezabatzeko berehalako ekintzari buruzkoa.

3. **Desgaitasuna duten pertsonak enplegatzeko legezko betebeharra.** Kontratuaren esleipendun izateko betebeharra, kontratuaren indarraldian, bere gain hartzen duena desgaitasuna duten langileak gutxienez enpresako plantillaren %2an izateko betebeharra, baldin eta langile horiek 50 langile edo gehiago badituzte, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluarekin bat etorriz. 1/2013 Legegintzako Dekretua, azaroaren 29koa, edo azaroaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako ordezko neurriak hartzekoa. Era berean, konpromisoa hartzen du kontratuaren arduradunak eskatzen dionean betebehar hori betetzen duela egiaztatzeko, kontratua indarrean dagoen bitartean edozein unetan edo faktura igorri aurretik.

4. **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra.-** Esleipendun izateko eta kontratua indarrean dagoen bitartean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko betebeharra bere gain hartzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, eta adierazten duena langile hauek erabiltzen dituela (kopurua adierazi). Era berean, konpromisoa hartzen du berdintasun-plan bat duela egiaztatzeko, legezko betebeharra badu (250 langiletik gora) edo plan konbentzionala, eta hori kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatuko du, hark hala eskatzen dionean, kontratua indarrean dagoen bitartean edozein unetan edo, nolanahi ere, azken faktura igorri aurretik.

5. **Aplikatzeko hitzarmen kolektiboa.-** Esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa honako hau da:

Hitzarmenaren izena:	
Zein Aldizkari Ofizialean argitaratua:	
Argitalpen data:	

Halaber, konpromisoa hartzen duela kontratua esleitu ondoren langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia emateko.

6. **Soldata hitzarmenaren arabera ordaintzeko betebeharra.-** Konpromisoa hartzen du, kontratua gauzatzen den bitartean, sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzeko, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango soldata hori baino txikiagoa.

7. **Lan-baldintzei eustea.-** Kontratua gauzatzeko atxikitako langileei, indarrean dagoen bitartean, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako lan-baldintzak zorrotz aplikatzen eta mantentzen direla bermatzeko konpromisoa hartzen duela.

8. **Subrogazioa.-** Kontratuaren esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera egiten ari diren langile guztien lan-kontratuak subrogatzeko betebeharra bere gain hartzen duela. Halaber, kontratua amaitu aurretik, konpromisoa hartzen du kontratua gauzatzera atxikitako langileen kontratuen baldintzei buruz beharrezkoa den informazioa emateko, lan-subrogazioak dakartzan lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko, SPKLren 130.1 artikuluan eta klausula sozial jakin batzuk sartzeari buruzko apirilaren 7ko 3/2016 Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoaren Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoa betez.

9. **Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.** Konpromisoa hartzen duela administrazio-klausula zehatzen agiri honetan adierazitako exekuzio-baldintza bereziak betetzeko, bai eta, hala badagokio, baldintza tekniko zehatzen agirian jasotakoak ere.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, hemen adierazten du:

_____en, 2025eko_____ean.

Sinadura: